

PREBENTZIO- ETA JARDUERA-PROTOKOLOA, BIZKAIKO NEGUKO KIROL FEDERAZIOARENA (COVID-19)

Protokolo honetan jasotako neurriek osasun-agintariek eta kirol-administrazioek ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen dituzte. Bizkaiko Neguko Kirol Federazioak (aurrerantzean, BNKF) Alberto Serrano izendatu du erakundeko osasun arduradun. Pertsona hori protokoloaren arduradun teknikoa izango da, eta protokoloaren betearazpena eta funtzionamendu egokia izango ditu eginkizun.

1. PREBENTZIO- ETA HIGIENE-NEURRIAK

BNKF-k, gure hornitzaileekin batera, egiaztatuko du gure jardueretan erabiltzen diren hirugarrenen espazio eta instalazioek Covid-19aren aurrean Jarduteko Arau Orokorretan ezarritako neurriak betetzen dituztela. Eskola-kiroleko irteeretan, bertaritzen direnei heldu batek bakarrik laguntzea gomendatuko da, pilaketak saihesteko. BNKF-k egiten dituen eta protokolo hau aplikatu beharko den jarduerak honako hauek dira: eski alpinoa (Gabonetako eta asteburuetakoa irteerak), izotz gaineko patinajea eta Bizkaiko gure alpino txapelketa.

ESKI ALPINOA (GABONETAKO ETA ASTEBURUETAKO IRTEERAK)

Hartutako lehen neurria bertaratutakoen kopurua murriztea da, 45etik 24ra igaroz, beherago zehazten ditugun neurri guztiak bermatu ahal izateko. Batez beste zortzi ikasleko azpitaldeak egingo dira, begirale baten laguntzarekin, irteeraren arduradunak gainbegiratuta.

Garraioa (ÁlvaroTravel): ikasleak Candanchura eramango dituen autobusa desinfektatuta eta garbituta dagoela egiaztatuko du BNKF-ak. Igo zein jaistean, eskuak garbituko dira gel hidroalkoholikoarekin. Era berean, maskara erabili beharko da ibilbidean zehar.

Ostatua (Santa Kristina babeslekua):

BNKF-ak babeslekuaren desinfekzioa eta garbitasuna egiaztatuko du, maizen ukitzen diren gainazalak azpimarratuz (etengailuak, heldulekuak, eskudelak), bai eta egunez hura aireztatzea ere. Gelak % 50ean okupatuko dira, eskola-ume bat litera bakoitzeko, eta oheen arteko bi metroko segurtasun-distantzia errespetatuko da, edo hesi-neurriak ezarriko dira. Gosarian, segurtasun-distantziak errespetatuko dira (1,5 metro) eta taldeak egingo dira pilaketak saihesteko. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da.

Materialaren alokairua (SportsPirineos): ikasleek banakako materiala izango dute, eta erabili aurretik eta ondoren desinfektatuko da. Goizean sortutako taldeak mantenduko dira, lokalean pilaketak saihesteko. Haur bakoitzak erabilera eskusiboko identifikazio-peto bat eraman beharko du. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da.

Candanchuko neguko estazioa (Etuksa): kirola egiten den bitartean ez da derrigorrezkoa izango maskara erabiltzea. Hitzaldi teknikoetan, kirolariek nahitaez erabili beharko dute. Bazkarian, Pista Handian, gosarian zehaztutako neurri berberak hartuko dira. Etuksaren laguntzarekin, mahaia gure taldeentzat erreserbatuta egongo dira.

Afaria (ElÁguila aterpetxea): gosaltzeko eta bazkaltzeko adierazitako neurri berberak errespetatuko dira. Jardunaldietan, begiraleak arduratuko dira prebentzio- eta higiene-neurriak errespetatzeaz (segurtasun-distantziak, maskara erabiltzea, eskuen ohiko higiea, janaria, edaria, tresnak eta abar ez partekatzea).

IZOTZ GAINEN PATINAJEA

Jarduera honen kasuan, Gasteizko izotz-pistan (Bakh) egiten den bezala, haiek aurreikusten dituzten segurtasun- eta higiene-neurriak izan beharko ditugu. Gure aldetik, jarduerara joaten direnen kopurua murriztuko dugu, 48 ikasletik 35era. Batez beste hamabi ikasleko azpitaldeak egingo dira, begirale baten laguntzarekin, irteeraren arduradunak gainbegiratuta.

GARRAIOA (ÁlvaroTravel): ikasleak Gasteizera eramango dituen autobusa desinfektatuta eta garbituta dagoela egiaztatuko du BNKF-ak. Igo zein jaistean, eskuak garbituko dira gel hidroalkoholikoarekin. Era berean, maskara erabili beharko da ibilbidean zehar.

MATERIALAREN ALOKAIRUA (Bakh): ikasleek banakako materiala izango dute, eta desinfektatu egin beharko da. Materiala jaso aurretik eta ondoren, eskuak desinfektatuko dira. Sortutako multzoak mantenduko dira, pilaketak saihesteko. Haur bakoitzak erabilera eskusiboko identifikazio bat eraman beharko du. Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da.

ESKOLAK: federazio honetako entrenatzaile batek ematen ditu eskolak, segurtasun-distantziak eta ezarritako azpitaldeak errespetatuz. Maskara nahitaez erabili beharko da, eta oxigenazio-geldialdiak 30 minuturo egingo dira, gutxi gorabehera, eta bi minutuko iraupena izango dute. Patinaje libreko denboran, BNKF-ko begiraleak arduratuko dira segurtasun-distantziak, higiene-neurriak, maskara erabiltzea, janaria, edaria, tresnak eta abar ez partekatzeaz.

BIZKAIKO ALPINO TXAPELKETA

Gure txapelketa Astungo Neguko Estazioan egiten da, aire zabalean eta banaka. Gure neurriez gain, estazioak zehazten dituen segurtasun- eta higiene-neurriak izan beharko ditugu. Bai irteeran bai helmugan, BNKF-ko entrenatzaileak arduratuko dira elkarrengandik urruntzeko, eskuak garbitzeko eta maskara erabiltzeko neurriak betetzeaz. Neurri hori nahitaezkoa da txapelketan parte hartzen duten guztientzat, lasterketan lehiatzen ari diren kirolarientzat izan ezik. Lasterketa.

SARI-BANAKETA: sari-banaketan zehar, 1,5 metroko distantzia ezarriko da, eta dagozkion segurtasun-neurriak errespetatu beharko dira; besteak beste, maskara nahitaez erabiltzea eta prozesuan parte hartzen duten pertsonen esku-higiea. Probako oroigarriak eta opariak banakako poltsetan banatuko dira.

COVID-19 KASUEN AURREAN JARDUTEKO PROZEDURA

Kirolariek, ikasleek eta BNKF-ko gainerako langileek, baldin eta COVID-19rekin bateragarri den sintomarik ohikoenetako bat izanez gero, hala nola 37º baino gehiagoko sukarra, hotzikarak, eztula, aire-faltaren sentrazioa, etab., ez dute jarduerara joan beharko, ez eta COVID-19ren diagnostikoagatik isolatuta dauden pertsonen ere, edo kontaktu estu bat izanagatik etxeko berrogeialdian daudenen. -BNKF-ak antolatutako jardueretan parte hartzen duten kirolarien edo ikasleen tutoreek egiaztatu eta ziurtatu beharko dute derrigorrez kirol-jarduera hasi aurretik prebentzio-neurriak ezagutu, onartu eta haiekiko konpromisoa adierazten duen dokumentua sinatuta izatea (1. eranskina).

2. KIROL-ERAKUNDEAREN JARDUNA COVID-19 KASU BAIEZTATUETAN: kirolari batek edo kirol-erakundeko langile batek Covid-19ri positibo ematen dionean, protokoloa betetzeko izendatutako erakundeko arduradunak Osakidetzako zerbitzuetara bideratuko du kasua, dagozkion osasun-protokoloak aplikatzeko. Era berean, erakundeko osasun-arduraduna osasun-agintaritzaren esku jarriko da (arakatzaileak) eta, hala badagokio, harremanetarako pertsonen informazioa emango die.

COVID-19 SINTOMAK JARDUERAREN AURRETIK: banakako kirol-lehiaketa baten edo eskola-kiroleko irteera baten aurretik gertatzen bada, erakunde parte-hartzaileko osasun-arduradunak erakunde antolatzaileko osasun-arduradunari jakinaraziko dio pertsona horren kirol-taldeko kideek ez dutela lehiaketan parte hartuko.

COVID-19 SINTOMAK JARDUERAN ZEHAR: jarduera edo lehiaketan gaixotasunaren sintomak (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, etab.) egon daitezkeela susmatzen bada, jardueraren teknikariek erakundeko osasun-arduradunari jakinaraziko diote. Azken horrek, era berean, familiari jakinaraziko dio, ikaslea jaso dezan. Familia bere osasun-zentroarekin harremanetan jarriko da, eta bertan egoera baloratuko da. Baloratu arte, pertsona isolatuta mantenduko da. Gaixotasunaren sintomak kirol-erakundeko gainerako langileengan agertzen badira, haien etxera joan beharko dute eta gomendio berberak jarraitu. Erakundearen osasun-arduradunak, egoeraren arabera, baloratuko du jarduera une horretan bertan eten behar den edo garatzen jarraitu ahal izango duen. Bigarren kasu horretan, prebentzio- eta higiene-neurriak ahalik eta gehien zorrozteko eskatuko die jarduerako teknikariei: kontakturik gabeko jarduerak eta pertsonen arteko distantzia are handiagoak dituztenak, nahitaezko maskara erabiltzea (intentsitate txikiko jarduerak egitea), eskuetako eta gorputzeko beste elementu batzuetako higiene-maiztasun handiagoa izatea, etab. Teknikariek muturreko neurri horiek "motu proprio" eran hartu beharko dituzte, kutsatzeko aukeraren edo arriskuaren inguruko zalantzarik txikiena ere badago.

ENTITATEKO FAMILIEKIN EDO BESTE PERTSONA BATZUEKIN KOMUNIKATZEA: erakundearen barruan COVID-19rekin lotutako kasu edo egoera bat gertatuz gero, eta kasu horretan entitateko familiei edo beste eragile batzuei jakinarazi behar bazaie, osasun-agintariek edo kirol-erakundeak berak egingo dute komunikazioa, kasuaren arabera. Bigarren kasu horretan, osasun-arduraduna izango da beti eginkizun horretaz arduratuko den pertsona (ez teknikariak).

DIZIPLINA-NEURRIAK ETA HORIEN BETETZE-KONTROLA: kirol-erakundeak barne-araubideari buruzko erregelamenduan sartu ditu protokolo honetan ezarritako arauak ez betetzearekin lotutako arau-hauste batzuk, bai eta kutsatzeko aukera ematen duten portaera edo jarrerekin lotutako beste batzuk ere. Arau-hausteak honako hauek dira: -

Arau-hauste arinak:

- Ekitaldian edo kirol-zentroetan , erakundeek maskararen erabilpenen gainean jarritako baldintzarik ez jarraitzea.
- Jarduerarako ezarritako eskuen eta gorputzeko beste elementu batzuen higiena ez garatzea, edo doministiku egitea, nahi gabe ezarritako babes-mekanismoa erabili gabe.
- Beste pertsona baten kirol-material pertsonala erabiltzea edo partekatzea, hori egitea debekatu bada. Edo beste pertsona baten arrisku bereziko erabilera indibidualeko materialak (ur-botilatxoak, eskuoihalak, zapiak, etab.) nahi gabe erabiltzea edo partekatzea.
 - Nahi gabe, kontaktuarekin agurra edo ospakizuna egitea.
 - Kirol-instalazioan egotea dagozkion jardueren denbora-tartetik kanpo.
 - Aldagelak baimenik gabe edo nahi gabe erabiltzea.

Arau-hauste larriak:

- Jardueran edo kirol-guneetan behin eta berriz ez betetzea agintariak eta erakundeak maskara erabiltzeari buruz ezarritakoa.
- Jarduerarako ezarritako eskuen eta gorputzeko beste elementu batzuen higiena behin eta berriz ez garatzea edo doministiku egitea, ezarritako babes-mekanismoa nahita edo behin eta berriz erabili gabe.
- Kirola egitearakoan beharrezkoa ez den egoeretan, beste pertsona batengana bere borondatearen aurka gehiegi eta borondatez ukitzea edo hurbiltzea.
- Beste pertsona baten kirol-material pertsonala erabiltzea, egoera hori debekatzen denean eta haren baimenik gabe.
- Beste pertsona baten arrisku bereziko material indibidualak (ur-botilak, eskuoihalak, zapiak, etab.) nahita erabiltzea edo partekatzea.
- Kutsatzeko arriskua ekar dezaketen egoeretan, teknikarien, arbitroen edo kirol-erakundeak edozein arduradunen zuzeneko jarraibideak ez betetzea.
- Kontaktua duten agurrak edo ospakizunak egitea, nahita edo behin eta berriz.
- Kirol-instalazioan egotea dagozkion jardueren denbora-tartetik kanpo, behin eta berriz.
- Aldagelak baimenik gabe eta nahita erabiltzea.
- Ume bati edo beste pertsona bati iseka egitea edo gutxiestea, COVID19 duelako edo izan duelako.
- Bost arau-hauste arin metatzea.

Arau-hauste oso larriak:

- Jardueran edo kirol-guneetan agintariak eta erakundeak maskara erabiltzeari buruz ezarritako behin eta berriz eta nahita ez betetzea.
- Doministiku egitea, txistua botatzea edo listua, mukositateak edo antzekoak botatzea beste

- pertsona bati, nahita.
- Beste pertsona batengana gehiegi hurbiltzea eta ukitzea kirola egitearen arabera beharrezkoa ez den egoeretan eta haren borondatearen aurka behin eta berriz.
 - Arrisku bereziko material indibidualak erabiltzea (ur-botilatxoak, eskuoihalak, zapiak, etab.), egoera horren berri nahita eman gabe.
 - Kutsatzeko arrisku handia izan dezaketen egoeretan, teknikarien, arbitroen, osasun-arduradunaren edo kirol-erakundeko beste edozein arduradunen zuzeneko jarraibideak ez betetzea.
 - Kirol-jarduerara joatea COVID-19rekin lotutako sintomekin, beharrezko neurriak hartu gabe edo hartutako konpromisoak bete gabe.
 - Kirol-erakundeari ez jakinaraztea kirol-erakundeko kidea edo bizikidetz-unitateko beste pertsona bat kutsatuta dagoela edo COVID-19rekin lotutako sintomak dituela.
 - Haur bati edo beste pertsona bati jazarpena edo bullyinga egitea COVID-19a duelako edo jasan duelako, edo egoera horri buruzko gezurrak zabaltzeagatik.
 - Hiru arau-hauste larri metatzea.

Ezarri beharreko zehapenak barne-araubideak arau-hauste mota bakoitzerako jasotakoak dira. Era berean, lan-arloan lotutako pertsonen arau-hausteen kasuan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan edo tresna negoziatu baliokidean xedatutakoa hartuko da kontuan. Osasuneko arduradunak arau-hauste horien eta dagozkien zehapenen berri emango die familiei, teknikariei eta arbitroei. Halaber, teknikariek kirolariei azalduko dizkiete, eta arauak betetzeak duen garrantziaren eta hezkuntza-balioaren berri emango diete.

PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA: egoera berria denez, hartutako neurrien eta behatutako jarreraren eta portaeren etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egingo da.

ZUZENDARITZA-ORGANOAREN BILERAK: osasuneko arduradunak, Zuzendaritza Batzordearen bileretan, erakundeak COVID-19ren aurrean duen egoeraren eta jarduketaren berri emango du. Hilean bilera bat egingo da gutxienez. Edozein unetan edo maiztasun handiagoz deitu ahal izango dira ezohiko bilerak, egokitzen jotzen bada.

BILERAK TEKNIKARIEKIN: bilerak egingo dira teknikariek, egoeraren balorazioa egiteko, neurriak behar bezala aplikatzen direla ziurtatzeko, egoki doitzeko eta izan ditzaketen zalantzak argitzeko. Horretarako, gutxienez, bilera hauek planteatuko dira: - Jarduerak hasi aurretik, jarduerak hasi eta hilabetera, 2. hiruhilekoaren hasieran. Eta salbuespen gisa, 3. hiruhilekoaren hasieran.

TEKNIKARIEN ETA KIROLARIEN ARTEKO BILERAK: jardueraren lehen egunean, teknikariek neurrien funtzionamenduari buruzko balorazio labur bat egingo dute taldean, parte-hartzailea izango dena, eta, hala badagokio, jarrerak eta portaerak zuzentzeari buruzkoa.